Aretxabaletako Udala

2026IKIB0001

GAZTELEKU ZERBITZUAREN PLEGU TEKNIKOAK

1.- TITULUA. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA.

1.1- Gazteria politika.

Aretxabaletako Udalaren gazteria-politika Gaztematikaren barruan kokatzen da.

Gaztematikaren xede nagusia da haurrei, nerabeei eta gazteei haien haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa horiek dituzten bi zentzuetan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa; hau da, etapa honetan nor bere bizitzako protagonista da, herritartasun-eskubideei lotuta dago eta ehundura sozialaren behar-beharrezko zatia da.

- Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen bizi-etapa gisa.

Gaztematikaren konfigurazio eta funtzionamenduari zentzua eta orientazioa ematen dizkioten printzipioak, balioak eta irizpideak hauek dira:

- o Haurrak eta gazteak sustatzeko politikaren izaera sektoriala eta espezifikoa nahiz zeharkakoa eta integrala.
- o Berdintasuna, ekitatea eta aniztasuna.
- o Erantzukizun publikoa eta gizartearen partehartzea.
- o Koordinazioa eta sare-lana.
- o Proaktibitatea, hurbiltasuna, pertsonalizazioa, jarraipena eta prebentzioa.
- o Jakintzan oinarritutako kalitatezko esku hartzea.

Gaztematikak, hurbileko zerbitzuak eskainiz eta zuzeneko arretaren bidez, haurren, nerabeen eta gazteen beharrei eta eskaerei erantzuten die. Beste esparru eta sistema batzuekin lankidetzan aritzea eta sarean lan egitea ere bultzatzen du.

Politika honen lehentasunetako bat da Udala sistemako zerbitzuez hornitzea eta horiek koordinatzea, dagokien erakundeekin edo zerbitzu enpresekin elkarlanean. Horrela, aurkeztutako marko hau garatzeko tresna nagusiak toki-mailako sustapen zerbitzuak dira: Haurrentzako Zerbitzua, Nerabeentzako Zerbitzua eta Gazteen Zerbitzua.

Horietatik guztietatik nerabeen zerbitzuko parte den gazteleku zerbitzua emateko helburua du baldintza plegu honek.

Gaztematikak nerabeei zuzendutako zerbitzua zehazteko oinarrizko dokumentua landu eta argitaratu du eta hori izango da baldintza plegu honen erreferentzia teoriko orokorra.

2.- KONTRATUARI BURUZ

2.1- Xedea.

Kontratu honen xedea da 12-17 urte bitarteko nerabeentzako urte guztiko gazteleku zerbitzua eskaintzea, balore hezitzaileak sustatuz, nerabeen parte hartzea bideratuz eta euskararen sustapena bultzatuz.

Kontratuaren exekuzioa zerbitzuaren diseinatze, planifikatze eta antolaketa lanetan gauzatzen da, agiri honetan ezarritakoarekin bat etorrita eta Aretxabaletako Udalaren zuzendaritzapean.

Gazteleku zerbitzuaren plangintza, arreta eta kudeaketa gazteleku ekipamenduan egiten da: Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean, Santakrutz kalean

2.2- Zerbitzuaren ezaugarriak.

Gaztelekua zerbitzua publikoa da, herriko 12/13 eta 17 urte bitarteko nerabe guztientzako erreferente izan nahi duen gizarte hezkuntzako udal-zerbitzua.

Gazteleku zerbitzuak koherentzia eman nahi dizkie toki-eremuko nerabeentzako proposamen guztiei. Nerabe-izaera errespetatzen duen ikuspegi batetik, Gaztelekuak nerabeen egungo errealitatea hobeto ezagutzea eta haien eratzea ahalbidetuko ditu.

Gaztelekuak hezteko asmoa du eta horrela definitzen dugu:

- Balio anitzeko proposamena da. Zerbitzuak nerabea bere osotasunean eta konplexutasunean hartzen du pertsonaren garapen integrala lortzeko. Nerabeen garapen sozial, afektibo eta kognitiboa garatzen laguntzea du helburu, beste nerabe, eta hezitzaileekin dituzten harremanak landuz.
- Partaidetzazko egitura bat da. Nerabeek aktiboki parte hartzen dute zerbitzuan; beren inguruko errealitatea ezagutu dezaten eta protagonista izan daitezen lan egiten da.
- Sustapeneko zerbitzua da, aukerak (laguntza, dinamizazioa, ikaskuntza, garapena, loturak) sortzen dituena.
- Komunitatearen parte da. Nerabeentzako zerbitzua herriaren dinamikan sartuta eta beste eragile eta talde batzuekin harremanetan dago, eta elkarrekin lan egiten dute.

Hauek dira nerabeentzako zerbitzua osatzen duten elementuak:

- Ekipamendua, nerabeak egoteko toki bat eta erreferentzien gune nagusia.
- Eskaintzen diren jarduerak eta ekintzak, ekipamenduan nahiz beste espazioetan.
- Harreman eragingarri baterako hezitzailez osatutako profesional talde bat.

Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arretaren tokiko sarean txertatzen da (Ludoteka zerbitzuarekin batera). Sare horren baitan era koherente eta koordinatuan lan egin behar du.

Nerabeek behar-multzo dinamiko eta aldakor bat dute (biologikoak, afektiboak, errealitatea ulertzekoak eta sozialak), eta horiek arreta behar dute, oraina eta etorkizuna izateko. Nerabeek autonomia garatzen duten bitartean, ingurune onuragarri bat behar dute, ingurune seguruak, babestuak, estimatuak eta lagunduak sentiaraziko diena.

Gaztelekuaren xede nagusia da Aretxabaletako nerabeen beharrei erantzuna ematea. Besteak beste, hauek dira behar nagusiak:

  - Prebentzioa, babesa, errespetua eta beren giza duintasunaren aintzatespena izatea.
  - Ondo pasatzea eta bizitzaz gozatzea.
  - Beren familiako, taldeko eta komunitateko ingurunearekin dituzten harremanen bitartez, maitasuna eta estimazioa jasotzea.
  - Pertsona gisa beren burua ezagutzea eta beren ingurunea ulertzea.
  - Erabakiak hartzea.
  - Adieraztea eta parte hartzea.
  - Beren bizitzako protagonista sentitzea.
- Beren autonomia pertsonala eta komunitatean duten integrazioa babestea eta sustatzea.

Zentzu honetan, hiru taldetan bana ditzakegu nerabeen beharrak:

- Nortasun pertsonalaren garapenerako beharrak: autonomia, segurtasuna, emozioak…
- Garapen sozialerako beharrak, gizarte-ingurunearen kide direla jabetzeko.
- Izaera instrumentala duten beharrak: ingurunearen ezaguera, gizartearen usadioak eta

ohituretara hurbiltzea, bertakoa eta beste kulturak ezagutzea eta errespetatzea…

2.3- Gazteleku zerbitzuaren helburuak.

- Herriko 12/13-17 urte bitarteko haurren zerbitzura dagoen egitura erreferentziala izatea, hurbilekoa, gertukoa eta jarraitua.
- Nerabeak eskubide osoko herritar eta eskubideen subjektu direla aitortzea, beraien izaera eta nortasuna zein testuingurutan eratzen den kontuan izanik.
- Nerabeentzat, ingurune seguru, babesleku eta tratu ona sustatzen duena izatea.
- Nerabeek aisialdiaz era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- Nerabeentzat esanguratsuak izango diren harreman pertsonalak eraikitzeko gune aproposa eta aukerak eskaintzea, adin berokoekin zein lan taldeko helduekin.
- Nerabeen artean euskararen erabilera bultzatzea eta euskal kultura sustatzea. Nerabeen artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin bultzatzea, eta horretan gustura aritu daitezen laguntzea.
- Nerabeak Aretxabaletako herritar aktiboak izateko, bertako bizi ohituretan eta jardueretan txertatzea. Era berean, nerabeen parte hartze aktiboa eta askea bultzatzea, nerabeak komunitateko parte eta subjektu aktiboak izan daitezen.
- Nerabeen informazio eta orientazio beharrei erantzutea.
- Nerabeen etorkinen parte hartzea eta inklusioa sustatzea. Nerabeen artean aniztasuna ezagutzen eta ezberdina dena onartzen laguntzea.
- Balioen heziketa sustatzea: errespetua, bizikidetza eta elkartasuna.
- Nerabeei jarduera berriak ezagutzeko eta parte hartzeko aukera eskaintzea, eta baita zaletasunak garatzeko ere.
- Nerabeen aisialdia bermatzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sortzekoak ahalbidetzea.
- Nerabeei inguru hurbilarekin harremanak izaten laguntzea; herritarrekin, bertako azpiegiturekin, eskaintzekin, zerbitzu eta komertzioekin, natura ingurunearekin…
- Nerabeei arreta emateko sareko lan-sistema komunitario batean parte-hartzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea.

Egin beharreko lana, atal honetan azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du esleipendunak, betiere Aretxabaletako Udalaren zuzendaritzapean.

2.4- Zerbitzuaren hartzaileak.

12/13-17 urte bitarteko Aretxabaletako nerabe guztiei zuzenduta dago.

Zerbitzuak bere izaera publiko eta unibertsala bermatu ahal izateko, bertara etorritakoak eta etortzen ez direnak kontuan izanik lan egingo du; eta ekipamendutik at, herriko beste espazioetan ere presentzia izan beharko du.

Gainera, zuzenean zerbitzuaren erabiltzaile izan ez arren, zeharkako hartzailetzat joko dira nerabeen heziketaren ardura duten helduak ere (gurasoak, irakasleak eta abar).

Zerbitzuko hartzaileek, finkatutako helburuei eta eskainitako programari jarraituz, eskubidea dute zerbitzua behar bezala eta modu eraginkorrean jasotzeko.

Zerbitzuko hartzaileek beren eskura jarritako ekipamendua eta materiala helburuen arabera errespetatu eta erabiltzeko betebeharra dute.

3.- ZERBITZUAREN PRESTAZIOARI BURUZ.

Zerbitzu honen arduradun nagusia Aretxabaletako Udala izango da: gazteria zerbitzua. Oro har, Udalak zehaztutako orientazioak eta arauak beteko ditu enpresa esleipendunak. Orientazio horien zehaztasunak 3. atal honetako hurrengo puntuetan garatuta azaltzen dira.

Gaztelekuko kudeaketan bi lan-eremu bereiziko dira, alde batetik zuzeneko arreta, hau da, nerabeekin egin beharreko esku-hartzea eta zerbitzua eremu komunitarioan garatzea, eta, beste aldetik, barne lanaren barruan, funtsatzea, planifikazioa, koordinazioa eta antolaketa.

3.1- Zuzeneko arreta.

Aretxabaletako nerabe zerbitzuak nerabeei behar bezalako arreta emango die eta hori egiteko modu egokiak sortu eta mantendu behar ditu.

Nerabeentzako zerbitzua hezteko pentsatutako zerbitzua da, harremana sortzeko eta garapena suspertzeko. Esku-hartzeko espazio desberdinak, eragina dutenak eta nerabeen partaidetza sustatzen dutenak sortuko dira. Bereziki azpimarratu nahi dira hezkuntza-prozesuak aurrera eramateko marko juridiko berriek azpimarratzen dituzten fokatzeak:

- Haur eta nerabeen eskubideetan oinarrituta.

- Integrala: nerabe guztien eskubide guztiak kontuan dituena. Desberdintasun sozialek nerabeen bizitzetan duten eragina arintzeko jardutea. Aisia jarduerak eskuragarri jartzea, herriko beste eskaintzetan parte hartzea erraztea…

- Sektoriala: prebentzioan oinarrituta.

- Nerabeen parte hartzean oinarrituta; beraien ahalduntzea sustatuz indarkeriari aurre egiteko.

- Partaidetza eta herritartasun aktiboaren sustapena; norbanako mailakoa, talde mailakoa eta komunitate mailakoa.

-Proaktiboa izatea: tratu ona eta elkar zaintza sustatzea.

Zerbitzuaren zuzeneko arretak, alde batetik, profesionalek garatutako hezkuntza-esparru egokitu, proaktibo eta integratzailea izango du ardatz; eta, bestetik, izaera komunitarioa duen garapena proposatuko du. Esku-hartzea jarraitua izango da, hezkuntza-prozesuen jarraipena bermatuz.

Harreman hezitzailea esku-hartzearen funtsezko tresna izango da. Harreman hori enpatikoa izango da, elkarrenganako konfiantzan oinarrituta. Hezitzailea prest egongo da unean uneko laguntza emateko nahiz bidean laguntzeko. Nerabezarotik gaztarora doan trantsizioaz arduratuko da. Zailtasun-egoeran dauden nerabeen parte hartzea ahalbidetuko da.

Zerbitzuak ekintza-arloetan oinarritutako (ikus Gaztematikako ekintza-arloak) programazioa osatuko du eta zerbitzuaren helburuei erantzungo diona. Horretaz gain, komunitate-mailan, aukera eta bide ezberdinak ahalbidetuko ditu nerabeek bizi diren ingurua ezagutu dezaten, herriko ekintzetan parte har dezaten, eta eragile aktibo izan daitezen.

Guzti horretarako hezitzaile taldeak ezinbesteko izango du:

- Herriko eragile, talde eta norbanakoak ezagutzea, haiekin elkarlanean jarduteko eta elkarrekin parte hartzeko lan egitea.

- Sare lana bultzatzea, eraiki eta sustatzea, zerbitzu prebentibo, integral eta integratzailea izateko.

- Herriko azpiegitura, espazio eta zerbitzuak ezagutzea. Programazioa kaleko espazioetan (parke, berdegune, plaza…), edo beste udal zerbitzuetan ere garatu ahalko dira.

- Ingurune on prozesua garatzea, nerabeentzako zerbitzu segurua eta babeserakoa izateko.

3.2- Barne lana.

Zuzeneko arretaz gain, zerbitzuak bere lana planifikatu, komunikatu eta ebaluatuko du, eta barne lan hori burutzeko uneak aurreikusi behar dira lana antolatzerakoan.

3.2.1- *Funtsatzea.*

Aretxabaletako nerabeen beharrak identifikatu eta horiei erantzuteko, hezitzaileek parte hartuko dute, gazteria teknikariarekin batera, zerbitzuaren funtsatzean. Zerbitzuaren ingurunea ezagutu, errealitate berriak nolakoak diren hausnartu eta nerabeen beharrak eta eskaerak identifikatuko dituzte. Zerbitzuaren gabeziak detektatu eta hobetzeko alderdiak proposatuko dituzte, beharrak identifikatuz.

Nerabeez arduratzen diren beste eragileekin (ikastetxeak, zerbitzu sozialak, osasun profesionalak…) zerbitzuaren oinarria partekatuko da eta nerabeak tokiko politikaren lehentasunen artean kokatzeko lan egingo da.

3.2.2- Planifikazioa.

Planifikazioaren bitartez helburuak lortzeari begirako jarduerak, estrategiak eta ekimenak zehaztuko dira. Horretarako, zerbitzuaren aurrekariak hartu beharko dira kontuan, besteak beste, aurreko ebaluazioak, erabiltzaileen proposamenak eta baliospenak. Nerabeei parte hartzeko aukerak eman beharko zaizkie erabakiak hartzeko prozesuetan.

Zerbitzuko urteko planifikazio bat aurkeztu beharko du, eta gazteria teknikariak balioztatuko du.

Ebaluazio bakoitzaren ostean planifikazioa berrikusi beharko da, beharrezkoa bada moldatzeko edota berarekin jarraitzeko.

Horrenbestez, urtean zehar ondoko dokumentuak aurkeztu beharko dira plangintza eta lan antolaketari dagokionez: zerbitzuaren urteko planifikazioa (helburuak eta lan ildoak jasotzen dituena), hilabeteko programazioa eta urteko egutegia (barne lana eta arreta zuzena jasotzen dituena).

3.2.3-Ebaluazioa.

Gazteleku programak ebaluazio txosten bat aurkeztu beharko du urtean birritan. Bertan, planifikatutako helburuen betetze maila jasoko da, zerbitzuan izena emanda duten nerabeen kopurua eta zerbitzuaren asistentzia kopuruak (sexu-genero, ikastetxe eta beste irizpide batzuk kontuan izanda), herrian antolatzen diren ekintza berezien gaineko ebaluazioa eta gastu balantzea.

Txostenek honako atal hauek jaso beharko dituzte gutxienez, unean uneko beharrei erantzunez:

- Erabiltzaileen inguruko datuak (sexuka, ikastetxeka…).
- Urteko plangintzan jasotako helburu eta lan ildoen ebaluazioa
- Erabiltzaileen iritzia, eta lan-taldearen ebaluazioa.
- Hurrengo ikasturterako edo lau hilabeterako hobetzeko proposamenak.
- Urteko balantze ekonomikoa.
- Material inbentarioa

3.2.4.-Barne-antolaketa.

Zerbitzuak barnean antolatutako espazioa izan behar du. Barne-lanerako denbora eta funtzio definituak behar dira ondorengo elementuei erantzuteko: giza baliabideak, baliabide materialak, udalarekiko harremana, entitatearekiko/enpresarekiko harremana, taldearen dinamizazioa eta prestakuntza.

Zerbitzua gazteria teknikariarekin koordinatuko da:

- Gazteleku zerbitzuaren inguruko jarraipena egiteko, bai planifikatzerakoan, bai zerbitzua ematen den bitartean, bai ebaluatzerakoan. Gutxienez 15 egunean behin koordinazio bilera bat egitea aurreikusten da.
- Gazteria Zerbitzutik eskaintzen diren zerbitzuen arteko foroko partaide izango da gaztelekua, ludotekarekin batera, eta urtean 3 aldiz bilduko dira.
- Aretxabaletako tokiko hezkuntza sarearen parte izango da, dagokionean bileretara hurbilduz.
- Ongizate emozionalaren mahaira joango da, gazteria zerbitzuak horrela eskatzen dionean.
- Hezkuntza ez formaleko eragileak eta udalak osatzen duten Berdintasun eta Gazteria mahaian parte hartzea.
- Gaztematikako formazio nahiz hezitzaileen foroan parte hartzea eskatu da.

3.2.5- Koordinazioa.

Gaztelekuaren martxa egokirako derrigorrezko eginkizuna da koordinazioa. Izan ere, nerabeen beharrak eta interesak anitzak izanik, horiei erantzuteko arlo eta eragile ezberdin askorekin batera elkarlanean aritu beharko da

Gizarte zerbitzuekin, zerbitzu psikosozialarekin, udal zerbitzu desberdinekin koordinazioa aurreikusiko da: behar bereziak dituzten nerabeak artatu edo jarraipena egiteko beharra dagoenean.

Herriko bi ikastetxeekin ere momentu puntualetan koordinatuko da.

3.2.6- Zerbitzuaren zabalkundea.

Zerbitzuaren zabalkundeaz esleipenduna arduratuko da, betiere, Udalaren irizpideak jarraituta. Zerbitzuaren inguruko informazio orokorra (helburuak, lan ildoak...) zein zehatza (egitarauak, jarduerak, ordutegiak...) eskainiko zaie hartzaileei, gurasoei eta herritar orori, aldez aurretik esleipendunak eta Udalak adostutako zabalkunde plan bati jarraiki. Plan horretan zehaztuko dituzte zein informazio zabaldu, noiz (ikasturte hasieran, opor garaian, data zehatzetan...), zein helbururekin (erabilera sustatzea, egitarauen berri ematea...) eta zein bide erabili (komunikabideak, esku orriak, Aretxabaletako App-a, agenda, sare sozialak...).

3.2.7- Etengabeko prestakuntza.

Gazteleku zerbitzuko langileen prestakuntza esleipendunaren erantzukizuna izango da.

3.3- Zehar lerroak garatzea.

Inklusioa, berdintasuna eta euskara izango dira zerbitzuaren zehar-lerro nagusiak. Modu zehatz batean eta jarraian azaltzen diren irizpideen arabera garatuko dira.

- Euskara.

Euskara izango da gaztelekuko hizkuntza, bai laneko hizkuntza moduan (harremanetarako, koordinaziorako, antolatzeko...) bai hartzaileei egingo zaien zuzeneko harreran. Horretarako beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: hezitzaile euskaldunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana...

Erabiltzaile bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuta, planak eta estrategiak inplementatuko dira euskararen erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko.

- Hezkidetza.

Gazteleku zerbitzuan hezkidetza lantzeko bitartekoak garatuko dira, nerabe guztien artean aukera berdintasuna egon dadin.

- Inklusioa-integrazioa.

Nerabeen artean dagoen aniztasuna kontuan hartuta, zerbitzuak arreta berezia eskainiko die, ahal den neurrian, premia bereziak dituzten pertsonei (gizartean zailtasunak dituztenei, urritasun fisiko, psikiko eta zentzumenezkoak dituztenei, jarrera arriskutsuak dituztenei, etorkinei...).

4. AZPIEGITURAK ETA BALIABIDE MATERIALA.

4.1- Azpiegiturak.

4.1.1- Gaztelekua

Udalak Santakrutz kalean duen lokala eta oinarrizko ekipamendua jarriko du (lokalaren eta bulegoaren altzariak). Argindarra, ura, telefonoa eta interneteko konexio gastuak ere Udalaren kontura izango dira. Oinarrizko garbiketaz ere arduratuko da.

Bulego materialaren horniketaz, euskarri informatikoaz eta lokala eta ekipamenduaren erabilera zuzenaz esleipenduna arduratuko da. Lokala eta bulegoa txukun mantentzearen ardura ere esleipendunarena izango da.

4.2- Baliabide materialak.

Zerbitzua burutzeko behar den materiala izatearen eta beharrezko ekintzak egitearen ardura esleipendunarena izango da. Zerbitzurako erosiko den materiala, zerbitzuarena izango da.

5. ZERBITZUKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK.

Zerbitzuko ordutegia eta egutegia eta ekintza berezien egutegia ikasturte hasieran diseinatuko da Udalarekin batera, zerbitzuari zuzendutako orduak beharraren arabera jartzeko.

Orohar eta erreferentzia gisa, Gaztelekuak egutegi hau izango du gutxienez:

1.- Gazteleku zerbitzua, ostegunetan, ostiraletan, larunbatetan, igandeetan, Gabonetako oporretan eta Aste Santuko lehen egunetan eskainiko da.

2.- “Udaero” programa: udako aisia eskaintza berezia izango da, eta uztailean egingo da, bi astetan zehar.

Egutegi honek aldaketak izan ditzake, betiere, udalaren eta zerbitzuaren artean adostuta.

Ordutegia:

Zerbitzuak arreta zuzeneko ondoko ordutegia izango du gutxienez:

- Ostegunak: 17:00-19:30

- Ostirala: 17:00-21:00
- Larunbata: 17:00-21:00
- Igandea: 17:00-20:30

6. ZERBITZUKO LAN TALDEAK ETA ESLEIPEDUNAREN BETEBEHARRAK.

6.1.- Giza baliabideak.

Zerbitzuak koordinatzaile bat eta txandaka lan egingo duten 3 hezitzaile izango ditu. Horretaz gain, zerbitzua jendez gainezka dagoen egunetan, hezitzaile extra bat ere aurreikusten da; guztira, 181 ordu sartuko dituena orotara.

Zerbitzua irekita dagoenean, beti egongo dira 2 hezitzaile lanean gutxienez, eta hirugarren hezitzailea beharrezkoa ikusten denean.

3 hezitzaile eta hezitzaile extrak guztira 2.382 ordu egitea aurreikusten da eta koordinatzailearen kasuan 412 ordu.

6.2- Langileen profilak.

Zerbitzuan jardungo duten langileek ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

1) Gaztelekuko koordinatzailea:

- 18 urte beteta izatea.
- Gizarte, humanitate edo hezkuntza zientzien esparruko unibertsitateko gradu bat izatea, edo goi mailako lanbide heziketako baliokidea.
- Europako Erreferentzia Markoaren euskarazko C1 gaitasuna egiaztatzea, agiri bitartez edo Udalak antolatutako proba bidez.
- Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa izatea.

2) Gaztelekuko hezitzaileak:

- 18 urte beteta izatea.
- Erdi mailako heziketa zikloa edo batxilergoa amaituta izatea.
- Begirale titulua izatea (lan-taldearen % 40ak beteko du baldintza; indarrean dagoen araudia kontuan izango da).
- Euskarari dagokionez, Europako Erreferentzia Markoaren idatzizko B2 gaitasuna eta ahozko C1 gaitasuna egiaztatzea, agiri bitartez edo Udalak antolatutako proba bidez.
- Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketako Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztea.

6.3- Langileen funtzioak.

a) Koordinatzaileak ondoko funtzioak beteko ditu:

- Aretxabaletako nerabeen errealitatearen eta jardueren eragina aztertzeko ardura hartzea.
- Zerbitzuaren funtsatzea eta nerabeen beharren ebaluazioa bideratzea.

- Plangintzaren diseinua, jarraipena eta ebaluazioa bideratzea
- Esku-hartzearen analisi orokorra gidatzea.
- Esku-hartzearen jarraipena egitea.
- Babes-ordezkaria izatea.
- Sareko lan-sistema komunitario batean parte hartzeko erantzukizuna agertzea. Hala nola, hezkuntza mahaian, ongizate mahaian eta gazteria eta berdintasun mahaian.
- Herriko eragileekin koordinatzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatzea.
- Zerbitzuaren ardura duen teknikariarekin koordinatuta lan egitea.
- Udal komunikazio arduradunari hileko programazioa jakinaraztea.
- Gaztematikako hezitzaileen foroan parte hartzea.
- Behar denean, gaztematikako lan taldetan parte hartzea.
- Tratu on eta Ingurune on prozesua zerbitzuan aurrera eraman dadin sustatzea.

b) Gaztelekuko hezitzaileek:

- Aretxabaletako nerabeen errealitatearen eta jardueren eragina aztertzea.
- Zerbitzuaren funtsatze-fasean parte hartzea.
- Nerabeen beharrak ebaluatzeko prozesuan parte hartzea.
- Plangintzaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- Nerabe guztien parte-hartzea sustatzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste eragileei zerbitzuan parte hartzen laguntzea.
- Zerbitzua erabiltzen duten nerabeekin heziketa-prozesuak garatzea.
- Nerabeen beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatzea.
- Zerbitzuaren presentzia beste espazioetan garatzea.
- Komunitatean parte hartu eta eragile izan nerabeen protagonismoa bermatzeko.
- Zerbitzuaren komunikazio-beharretan eta zabalkundean laguntzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatzea.
- Lantaldearen dinamizazioaren barruan, zerbitzuaren garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartzea.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartzea.

6.4- Udalarekin harremanetarako arduraduna.

Enpresa esleipendunak arduradun bat izendatuko du Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko.

6.5- Kontratatuko diren langileen agirien aurkezpena.
Kontratua gauzatzen hasi aurretik, gazteleku zerbitzuan lanean ariko diren langileen ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu enpresa esleipendunak:

- Gizarte Segurantzan alta emana izatea egiaztatzen duen agiria.
- Lan kontratuaren kopia.
- Eskatutako prestakuntza betetzen dutela ziurtatzeko agiriak (titulazioa eta hizkuntza gaitasuna).
- Sexu delituei buruzko zigor aurrekaririk ez izatearen ziurtagiria.

6.6.- Hizkuntza betebeharrak zerbitzua ematerakoan

Hizkuntza gaitasuna: Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Gazteleku zerbitzuko koordinatzaileak eta 4 hezitzaileek plegu honetako 6.2 klausulan adierazitako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna, eta horretarako, honako bide hauek erabili ahalko dira:

1. Dagokion ziurtagiria, titulua edo diploma aurkeztea, egoki den erakunde publiko edo zentro ofizialean egin eta emandakoa, edo
2. Udalak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Subrogazio kasuetan, langileek kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko hizkuntza-gaitasunik ez badute, beharrezko neurriak adostuko dira zerbitzu hartzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

Hizkuntza paisaia: Zerbitzua emango den lekuan, hizkuntza paisaia osatzen duten kartel, ohar eta gainerakoak euskaraz egongo dira.

Hizkuntza ofizialen erabilera:

a) Nerabeekin: harreman guztiak euskaraz gauzatuko dira, bai ahoz bai idatziz.
b) Guraso, herritar, eragile edo bestelako helduekin: ahozko harremanak euskaraz izango dira, ulermena bermatuta dagoen guztietan. Idatzizko harremanei dagokienez (gutunak, oharrak, esku-orriak, kartelak, mezuak…), euskaraz edo ele bietan egingo dira; eta ele bietan eginez gero, euskarazko testua aurretik idatziko da.
c) Udalarekin: Udalaren eta esleipendunaren arteko harreman administratiboak (kontratu, faktura, ...) euskaraz edo ele bietan izango dira; zerbitzua ematetik sortutako ahozko zein idatzizko komunikazioak, berriz, euskaraz izango dira (koordinazio bilerak, urteko planifikazioa, jarraipen eta ebaluazio txostenak, gastu balantzeak, memoria, …)

7.- INBENTARIOA.

Esleipendunak hasierako inbentarioa egingo du Udalarekin batera, eta kontratuak irauten duen bitartean eguneratua eduki beharko du; ondasunak zaintzeaz arduratuko da eta Udalari jakinaraziko dio zerbait desagertu edo hondatuz gero.

Hasieran dauden ondasun guztiak eta esleipendunak instalazioei gehitu diezazkiokeenak, egoera onean eta funtzionatzeko moduan egon beharko direnak, Aretxabaletako Udalaren esku geratuko dira kontratua amaitzen denean.

8.- IKUSKAPENA.

Udalak gaztelekuari zuzenean lotutako jarduerak ikuska ditzake esleipendunaren betebeharrak egiaztatzeko. Era berean, ikuskatu ahal izango du esleipendunak baldintza teknikoak betetzen dituen edo ez. Administrazioak zerbitzuak kanpotik ikuskatzearekin batera, esleipendunak zerbitzuak etengabe ikuskatu behar ditu barrutik.

9.- ESLEIPENDUNAREN ARDURA.

Esleipendunaren ardura da kontratua betetzerakoan sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Halaber, zerbitzua ematerakoan hartzaileek jasan lezaketen edozein motako istripu edo gertakari kaltekorra ere bere gain hartu beharko du.

Horretarako, eta zerbitzua ematen hasi aurretik, enpresa esleipendunak zerbitzu honen xede guztia estaliko duen erantzukizun zibileko asegurua itundu beharko du entitate aseguratzaileren batekin.